

Emakume Aske eta
Bortxakariak



GU HILTZEN ETA BORTXATZEN JARRAITZEN DUTE

KAPITALISMOA EMAKUMEON
AURKAKO INDARKERIA DA





Indarkeria matxistaren sarraskia Hiltzen gaituzte eta hemen ez da ezer gertatzen!

2003an erregistro ofizialak hasi zirenetik hilketa matxista gehien izan diren hilabete gisa igaroko da oroimenera 2022ko abendua. Hamahiru emakume erail zituzten 28 egunetan. Joan den urtean, orotara bi adingabe eta 49 emakume hil zituzten bikotekideek, bikotekide ohiek edo aitek Estatu espainiarrean. Horietatik 21 kasutan (% 42,9) aurretik salaketak jarrita zeuden eta bost kasutan ustezko babes neurriak zeuden, hiltzailetako batzuk Vio-Gén sisteman ere bazeuden aurreko tratatu txarren ondorioz... baina ez zuten balio izan erailketak eragozteko.

Urte tragiko baten jarraian, 2023a 24 ordutan eraildako lau emakumerekin hasi zen. Amorrua, ez dago beste hitzik. Gu hiltzen jarraitzen dute eta hemen ez da ezer aldatzen. Gauza oso bestelakoa litzateke biktimak apezpikuak, bankariak, politikariak edo epaileak balira.

Sistema emakumeon aurkako gerran

Feminizidiei beste datu lagzarriak gehitzen zaizkie. 2022an, bortxaketak %38 ugariatu dira, eta kalkuluaren arabera, Espainiako Estatuan zortzi milioi emakume baino gehiagok jasan dute sexu jazarpena. Argi hitz egin behar da: terrorismo matxistaren errudunak ez dira hiltzen edo erasotzen dutenak bakarrik. Gaitz sozial hori Estatu aparatuek eta epailetza matxista eta klasista batek baimentzen eta babesten dute. *Soilik bai da bai* legearen aurkako erasoaldi erreakzionarioa —PSOEn zuzendaritzaren babes aktiboa izan zuena— edo Auzitegi Konstituzionala berritzearen harira gertatutako itxuragabekeria antidemokratikoa gerra deklaratu honen adibide dira.

Togadun eskuindar horiek, Vox eta PPko buruzagiek bezala, epai larriak dituzten bortxatzaileak babesten dituzte, seme-alabak erasotzaileen eskuetan uztera behartzen dute, enpresaburu jazarleak babesten dituzte eta gutxiago ordaintzen digute emakume izateagatik bakarrik, abortatzeko eskubidearen aurka jotzen dute eta euren homofobia eta transfobia mugarik gabe barrietzen dute. “Patria, Familia, Dios y Bandera” leloaren jarraitzaileak dira, gure aurkako indarkeria mota posible guztiak suspertu dituztenak. Gaztela eta Leonen Vox eta PPren Gobernuak onartutako abortuaren aurkako neurriekin esate baterako, hemendik aurrera, ospitaleetako langileak haurdunaldia eten nahi duten emakumei fetuaren taupadak entzuteko aukera eta 4Dko ekografia eskaintzea planteatu baitute. Sistema honetan eta eskuin mutu-

rra erabat adoretuta dagoela, egun ditugun eskubideak kolpe batez ezabatuko izan daitezke.

Zerk balio du eta zerk ez matxismoaren aurkako borrokan?

Nazkatuta gaude, emakumeen aurkako indarkeriak ez baitu etenik, nahiz eta PSOE-UPren Estatuko Gobernuak adierazpenak egin eta lege berriak ateratu. “Zerbait ez gara ondo egiten ari gizarke gisa”, esaten digute. Baina errealtatea parez pare begiratzen badugu, gauzak ondo egiten ez dituen Gobernuak da.

Kontraesankorra dirudi hilketen gorakada lege feminista gehien tramitatzaren ari direnaren gertatzea. Baina ez da. Matxismoarekin amaitzeko, ez da nahikoa matxismoa salatzea edo, be-

terik gabe, legeria aldatzea. Ez dugu genero indarkeriarekin amaituko Estatu Seguratasun Indarrak elikatuz, epaileak “berdintasunean heziz” edo erakunde arto koordinazio eta informazio gehiagorekin.

Arazoaren sustraira jo behar da, hots, kapitalismoak eragiten duen zapalkuntza ekonomikoa, ideologikoa eta generokoa borrokatzea. Emakume Aske eta Borrokalarietatik beti babesteko ditugu eskubideetan aurrera egiten duten neurriak, bai baitakigu lege aldatetako, kasu askotan, borrokaren fruitua direla. Baina erretorika hutsa ez dugu inoiz txalotuko.

Ondorioz, indarkeria matxistaren aurka borrokatzea, eskuin muturrari eta Eliza Katolikoari aurre egin behar zaie, frankistak Estatuaren aparatutik eta haren erakundeetatik garbitu behar dira, eta gure zapalkuntza areagotzen duten lege atzerakoiak indargabetu behar dira, hala nola Atzeritarren Legea. Dauden baliabide ekonomiko izugarriak mobilizatu behar dira, horiek kapitalisten, enpresaburuaren eta proxeneten jabetzatik kendu eta premia sozialaren eta zapalduen zerbitzura jarri: harrera etxeak, enplegu duinak edo sorospen mugagabea lana aurkitu arte, etxebizitza eskuragarria, kalitatezko zerbitzu publikoak... Biktimen eskura baliabide ekonomiko, material eta giza baliabide errealek jarri gabe, ezin da berdintasunik egon.

Matxismoaren aurkako borroka eskuinarekin inutak berritzera bideratzea kalezulo itsua da. Mugimendu feminis-

taren mobilizazio irmo eta kementsue-narekin bakarrik amaitu daiteke sistema honek emakume gazte eta langileei eguneroko inposatzen digun indarkeriarekin.

Bizirik, aske eta borrokalari! M8an ikasle greba feminista

Martxoaren 8ak gure borrokan berebiziko garrantzia hartu du. Emakume Aske eta Borrokalariak eta Ikasle Sindikatuek M8an ikasle greba feminista egiteko eta kaleak betetzeko deia egin dugu 12:00etan egingo ditugun manifestazioetan eta arratsaldekoetan. Baina erantzun ahalik eta sendoena ematea ez dagokigu soilik ikasleei. Sindikatuek eta erakunde feministek greba orokorra deitu beharko lukete! Indarra dugu eta dena berriro geldiarazteko arrazoiak soberan daude. Hori litzateke eskuin muturrari eta matxisten kalapita guztiari erantzuteko modurik hobena.

Kapitalismoa emakume langileen eta gazteen aurkako indarkeria sistemikoa da. Baina ez dugu onartuko sistema honek gu zapaltzen jarraitzea. Ez dugu atzerapausorik emango indarkeria eta erailketak matxistekin behin betiko amaitu arte.

Batu eta eraiki gurekin feminismo iraultzailea!



5. URTEURRENA Emakume Aske eta Borrokalariak


KONTRAPORTADAN HASTEN DA



Nieves Canalejo López
Ostalaritzako langilea
(A Coruña)


Oroimena dudanetik nabil lanean. Etxean neskatza nintzela, anaia zaharrago bat izan arren, emakume gisa “tokatzen” baitzitzaidan oheak egitea, harrikoa egitea eta oli-bondoak biltzea joatea. Gero, 14 urterekin, etxe dirudunetan zerbitzatzen internagisa hasi, eta, gaur arte, 59 urte ditudalarik, ez naiz gelditu. Zapalkuntza emakume eta langile gisa bizi izan dut bizitza osoan, modu askotan, eta argi nuen borrokarako tresna espezifikoa behar genituela. Badakit ez dela iraultzarik izaningo emakumearen emantzipaziorik gabe, eta alderantziz. Horregatik poztzen naiz Aske eta Borrokalari-

rien sorkuntzarekin eta atsegin handiz ari naiz jo ta ke borrokatzen, badakidalako horrela jarraituko dugula DENA lortu arte.




María Fuentes
Gregorio Marañón
Ospitaleko garbiketako
langilea (Madrid)

Urte asko daramatzat emakumeak defendatzen, batez ere nigandik oso gertu dagoen jendeak indarkeria matxista jasan duelako eta, gaur egun, tratamenduan jarraitzen dutelako ondorioengatik. Aske eta Borrokalariak 2020an ezagutu nuen, PPK Gregorio Marañonen garbiketako zerbitzua pribatizatu nahi izan zuenean, bertan lan egiten baitut. Borroka horretan lagundu ziguten kolektibo ugarietako bat izan ziren. Orduetik, ahal dudan guztian parte hartzen dut, eta %100ean laguntzen diet, horrelako kolektiboak eraikitzea oso beharrezkoa dela uste baitut. Ahotsa eta




Óscar Soria Moya
Ikaslea
(Málaga)



Mireia Alonso
Ikaslea
(Gasteiz)

Duela gutxi hasi nintzen Aske eta Borrokalarietan parte hartzen, baina une bakoitzean gogoan izan dut norberaren idealak partekatzen dituzten pertsona gehiago daudela jakiteak transmititzen dizun indarra eta segurtasuna. Beti gustura zauden erakunde abegikorra da, eta libre sentitzen zara edozein helburu edo pentsa-

mentu komentatzeko, eztabaidatzeko eta partekatzeko. Feminismoaz dituen ideiak bat datoz nik partekatzen ditudanekin, eta horregatik gustatzen zaizkit hainbeste bultzatzen dituzten ikuspuntu, borroka eta mugimenduak.



Aske eta Borrokalarien berri izan nuen lehen aldia duela ia 5 urte izan zen, Malagako Unibertsitatean LGTBIfobiaren aurka antolatuta zuten batzar baten ondorioz, eta hortik aurrera plataformaren eta Ikasle Sindikatuen jardueran parte hartzen hasi nintzen maiz. Aske eta Borrokalariak taldean nago, uste baitut erakunde hori zapalduen barrikadan dagoela beti, eta kontsekuentea dela bere ideiekin. Gaia oso polemikoa izan arren, betiere langile klaseko emakumeekin, mi-gratzaileekin eta LGTBekin posizionatzen da, sistemaren zapalkuntza gogorren pairatzen dutenekin.

Inditexeko langileak borrokan A Coruñaeko garaipenaren ostetik, altxamendua zabaltzen ari da

Abenduaren 22an, hilabete bat baino gehiago mobilizatzen eman ondoren, eta A Coruña Inditexeko saltzaileen greba hasi eta ordu gutxira, CIG sindikatu deitzaileak %25eko soldata igoeraren aurrekordioa lortu zuen: 4.800 euro gordineko igoera esteko 15 ordutik gorako lanaldiak dituzten langileentzat (erdia lanaldi txikiagoko kontratuetan). Hau da, hileko 322 euroko berehalako igoera 15 hiletan banatua eta 2024an 382 eurora iristea!

Garaipen horren ondoren, urtarillaren 7an, Estatu osoko langileek bat egin zuten CGTK deitutako grebarekin. Sevillan, Logroñen, Valentzian, Bartzelonan eta Madrilan langileek Zara, Kiddy's Class, Lefties eta Pull&Bear enpresen dendak itxe lortu zuten. Galiziako langileekin arrakastaren ondoren eta greba egun honen ondoren, deitzaileek mobilizazioekin jarraituko dutela iragarri dute, Ortega familiak inposatzen duen prekarizazioa desegin arte. Emakume langileak indartsu ari dira jo ta ke.

“Marta Ortegari gure soldatak bost axola”

Kontsigna soil horrekin, Inditexeko langileek oso argi utzi dute zertan datzan burgesiak eta komunikabideek hainbeste aipatzen dituzten “emakumeen arteko sororitatea”. Marta Ortega, taldeko egungo presidentea, emakumea da. Baina emakume horri bost axola dio langileak hilaren amaierara iritsi ezinik edukitzea eta gizonetako gehiago diren fabrikako eta zentro logistikoko solda-

tu baino 600€ gutxiagoko oinarritzeko soldatak ezartzea emakumeen plantillei. Azken batean, 2022ko hirugarren hiru hileko Inditexek inoiz izan duen oparoen irabazirik inoiz zuten otsailetik urrira bitartean: iaz baino %24 gehiago!

Marta Ortega emakumea da, baina, batez ere, kapitalista bat da, aberats bat, langileei familia kontziliazioarekin batez ere lan baldintzak inposatzen dizkiena. Multinazionalaren presidentetzat hartu zuenetik, are gehiago gogortu du langileen egoera: kontratu partzial irri-garriak, kontziliatzeko ezintasuna, norberaren kontuengatik egunak ukatzea, epaitegira joan behar izatea lanaldi murriztuen ordutegiak adosteko eta kasu batzuetan komunera joateko baimena eskatu behar izatea.

Hau da emakume kapitalisten sororitate: milaka emakume langileen esploatazioaren kontura aberastea.

CCOO eta UGT talan langileen irimotasunaren aurrean

Mobilizazio handiko asteak izan dira. Langileek, patronalaren xantaiari ez ezik, enpresaren eta CCOO eta UGTko zuzendaritza sindikalen aliantza lotsagarria ere aurre egin behar izan diote, horiek greba hausten eta borroka garatzeko ekintza sindikal oro desegiten saiatu baitira: enpresarekin langileek bazter-

tu dituzten akordioak sinatu dituzte eta jarraian grebara deitu duten erakundeak kriminalizatzeari ekin diote. Langileen irimotasunarekin topo egin duten arte.

A Coruña kideen garaipenak erakusten du zein den bidea. Horregatik, Inditexeko langileen altxamendua aurrera jarraitzen du. Helburua: hileko 500 euroko soldata igoera, igandeak gainerako jaiegunetako baldintza berberetan ordaintzea eta gizarke laguntzak parekatzea enpresako sektore maskulinizatuak dagoeneko jasotzen dituenekin (eskola materiala, haurtzaindegia eta jantokia).

Horrela borrokatzen eta irabazten da! Zuekin gaude!

Parte hartu
Emakume Aske eta Borrokalarien

**Estatu mailako
V. Topaketan**

Larunbata otsailak 25 | Madrid | 10etan
Eman izena libescombativas.net webgunean
Animatu!



FEMINISMO IRAULTZAILEA AURRERA DOA INDARTSU



Teresa Prados
Diseinugilea (Bartzelona)

2017an izan nuen lehen harremana Aske eta Borrokalariak elkartearekin. Milatik gora emakumekin batera Essuretik Aske plataforman borrokan nengoe-la izan zen, Bayer-en antisorgailu horren eramaileak izateak gure osasunean izan zituen eta dituen ondorio latzak salatzen antolatu baikin. Aske eta Borrokalariak erakundeko kideak erabakigarriak izan ziren gure borroka aurrera eramateko. Feminismo iraultzailearen ideiak ezagutarazi zizkidaten eta kontentzitu nintzen, erantzunak eman zizkidalako eta lanean, sindikatuetan, politikan eta arlo pertsonalean jarraitu beharreko bidea erakutsi zidalako. Klaseko feminismoak, Rosa Luxemburg edo Alexandra Kollontairen ideietan oinarritzen denak, berretsi egin zidan emakume langilearen emantzipazioaren aldeko borroka gure klase osoaren askapenaren aldeko borroka dela.



Carmen Muñoz
Ostalaritzako langilea eta
Lanbide Heziketako ikaslea
(Cadiz)

Dena 2019an hasi zen, Madrilen urte luzez ostalaritzaren sektorean lan egin ondoren, haurdun egoteagatik kaleratu

nindutenean. Orduan erabaki nuen pauso bat aurrera ematea eta Ezker Iraultzailearekin harremanetan jartzea politikoki eta sindikalki antolatzeko. Haien bidez, Aske eta Borrokalarietako kideak ezagutu nituen, eta oso islatuta sentitu nintzen haietako bakoitzean. Emakume, langile eta ama izatea, klase gisa ditugun eskubideak etengabe kolpatzen dituen sistema batean, eguneroko borroka etengabea da. Horregatik, niretzat harro egoteko modukoa da plataforma honetako kide izatea eta milioika emakume eta gazte langileri eskaintzeko ezer ez duen sistema honekin amaitzeko borrokatzea.



Carmen Diego
SAD Asturiasko langilea
(Asturias)

Gure plataforman urteak dira Aske eta Borrokalariak taldearekin harreman estua dugula. Eskuzabaltasun handiz hurbildu ziren guregana, urte hauetan izan ditugun borroketan babesteko eta laguntzeko. Feminismo iraultzaile eta antikapitalista defendatzeko bidea markatu dute. Aske eta Borrokalariaren borroka klasekoa da, sexu esplotazioaren, lan prekarietatearen eta justizia patriarkalaren aurka egiten duena eta sexu heziketako irakasgai bat aldarrikatzen duena. Horregatik, bat gatoz, eta elkarrekin borrokatzen du-

gu zapalkuntza eta abusuak dauden eremu guztietan. Eta aurten ere martxoaren 8ko greba feminista aldarrikatuko dugu.



Laura Gil Vattier
Ikaslea (Sevilla)

2018an hasi nintzen Aske eta Borrokalariaren parte hartzen, La Manadaren epaiaren aurkako mobilizazioetan. Orduan afiliatu nintzen, eta gaur egun ere jarraitzen dut, emakumeok eta LGBTBI kolektiboak jasaten dugun zapalkuntza sistema kapitalistan eta horren makineria erreakzionarioan oinarritzen baita. Gure eginberrara da, langile klaseko seme-alabak garen aldetik, sistema jomugan jarriko duen feminismo iraultzaile baten alde borrokatzea, ezinbesteko kontsignak defendatuz, hala nola abortatzeko eskubidea eta prostituzioaren, pornografiaren eta alokairuko sabelen abolizioa.



Ana Isabel Arellano
Ikaslea (València)

Aske eta Borrokalarietako kidea naiz duela 4 urtetik. La Manadaren epaiaren aurkako mobilizazioetan ezagutu nuen erakundea, azken aldiko borroka feministan mugarri izan ziren protestetan. Une horietan, masen ekintza funtsezkoa da, eta


harro nago Aske eta Borrokalariak protesta horien buruan kokatu zela esateaz. Ikasle grebak eta manifestazioak izan ziren nortasun ikurra, eta horrek bultzatu ninduen afiliatzera. Orain militantzia aktiboa egiten dut, ikastetxeetara joaz, kartelak itzatsiz, gure aldizkaria ahal dudan tokian helaraziz, bileretara joanez, egunero gauzak benetan nola alda daitezkeen ikasiz. Horregatik, hemendik aurrera pauso hori ematera eta elkartzera animatzen dut jendea, antolakuntza baita bide bakarra.

2. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU ▶



16. zenbakia

622 174 122
askeetaborrokalariak@gmail.com
www.libresycombativas.net



**EZKER
IRAULTZAILEA**